

Kirolirun

IRUNGO KIROLDEGIETAKO IKASTAROEN HIZKUNTZA PLANA

BALANTZE TXOSTENA 2013

2013ko maiatzaren 10a

4.2.- HAURREN IGERIKETA IKASTAROETAN EGINDAKO ZUZENEKO BEHAKETAK

Haur eta haurtxoen igeriketa ikastaroen hizkuntza funtzionamenduari buruzko datuak eskuratzea izan da zuzeneko behaketa bidez hizkuntza neurketak egitearen helburu nagusia eta bide batez, begiraleek gehien erabiltzen dituzten hitz eta espresioen bilduma ere prestatu da.

Neurketa lana antolatzeko, igeriketa modalitate bakoitzeko mailaren arabera berezitutako taldea hartu dugu oinarri eta aztertutako lagina ahalik eta adierazgarriena izateko kontuan hartu ditugun aldagaiak dira: kiroldegia, igeriketa maila bakoitzeko talde kopurua, asteko egun eta ordua eta ikastaroa emateaz arduratzen den monitorea.

Horrela, 51 talde izan dira behatutakoak eta guztira 1.197 hizketa-aldi neurtu dira, hiru harreman motari jarraiki: haurren arteko harremanak, monitorea haurrei zuzendutako azalpenak eta haurrak monitoreari hitz egindakoak. Harreman horiek osatzen dituzten mintzakide bakoitzaren interbentzio bakoitza hizketa-aldi bat izango litzateke. Behatutako harreman-motak aztertuz, haurren arteko harremanen datuak jasotzerakoan solasaldian 3 haurrek parte hartzen badute 3 hizketa-aldi kontabilizatu dira, bakoitza dagokion hizkuntzan; mintzakide berdinaren arteko elkarrizketa berean hizketa-aldi bat baino gehiago neurtu daiteke, beraz. Aldiz, monitorea-haurra eta haurra-monitorea harremanetan mintzakidea beti da pertsona bakarra eta ondorioz, adierazitako esaldi edo azalpen bakoitzak osatzen du hizketa-aldia.

4.2.1.- Neurketaren ezaugarriak

- **Neurketa garaia:** apirilaren 15etik 19rako astea, asteko 5 egunetan
- **Tokia:** Irungo Artaleku eta Azken Portu Udal kiroldegjak
- **Behatutako talde kopurua:** 51 talde; 28 (% 55) Artalekun eta 23 (% 45) Azken Portun
- **Talde bakoitzerako behaketaren iraupena:** 15 minutu
- **Neurketa kopurua guztira:** 1.197: 654 neurketa (%55) Artalekun eta 543 neurketa (% 45) Azken Portun
- **Neurketa kopurua harreman-motaren arabera:** haurren arteko harremanak 170 (% 14), monitorea haurrei 800 (% 67) eta haurrak monitoreari 227 (% 19)

4.2.2.- Emitza nagusiak

- Kiroldegi bakoitzean behatutako talde kopurua igeriketa mailaren arabera

Behatutako 51 taldetatik 28 Artaleku kiroldegikoak izan dira eta beste 23 Azken Portukoak. Taldeen igeriketa mailari dagokionean, "Dortoka" eta "Igela" taldeak izan dira gehien behatutakoak, guztizkoarekiko % 68ko pisuarekin. Maila horiek dira, baita ere, kiroldegietako eskaintza kontuan izanda eskaera gehien dutenak.

Igeriketa mailak haurren adinarekin duen lotura estua ere kontuan hartu beharreko beste faktore bat da; izan ere, zenbat eta adinean aurrerago orduan eta maila altuagoa eskuratzen dute gaztetxoek.

	Maila	Behatutako talde kopurua		Ikastaroetako talde kopurua guztira		
		Kop.	%			
Artaleku	Igeriketa	HAURTXOAK	-	-	17	11,8
		DORTOKA.....	9	17,6	19	13,2
		IGELA	9	17,6	14	9,7
		OLAGARROA.....	3	5,9	12	8,3
		PINGUINOA	3	5,9	6	4,2
		MARRAZOA	2	3,9	6	4,2
		EZPATARRAINA	-	-	2	1,4
		ELBARRITUAK	2	3,9	5	3,5
		GUZTIRA.....	28	55,0	81	56,3
Azken Portu	Igeriketa	DORTOKA.....	8	15,7	28	19,4
		IGELA	9	17,6	12	8,3
		OLAGARROA.....	4	7,8	12	8,3
		PINGUINOA	2	3,9	4	2,8
		MARRAZOA	-	-	1	0,7
		AZPATARRAINA	-	-	2	1,4
		ELBARRITUAK	-	-	4	2,8
		GUZTIRA.....	23	45,0	63	43,8
	GUZTIRA	51	100,0	144	100,0	

Iturria: Siadeco, 2013

- Kiroldegietako ikastaroetan erabilitako hizkuntza, harreman motaren arabera

Guztira behatu ditugun haurren arteko 170 harremanak aztertuta, esan, orotara euskaraz aritutako komunikazioen pisua % 23koa dela eta gaztelaniazkoena % 77koa.

Bi kiroldegien artean badaude alde nabarmenak. Batetik, Azken Portun behatutako taldeetan haurrek gehiago hitz egin dute euren artean Artalekun behatutakoetan baino; kontuan hartu Azken Portun Artalekun baino bost talde gutxiago behatu direla. Gainera, behaketa garaian aztertutako haurren arteko harremanetan euskarak presentzia altuagoa izan du Azken Portun (% 36) Artalekun baino (% 8).

Kiroldegia		HAURREN ARTEKO HARREMANAK					
		Euskaraz		Gaztelera		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Artaleku	Kop.	6	15,4	73	55,7	79	46,5
	%	7,6	-	92,4	-	100	-
Azken Portu	Kop.	33	84,6	58	44,3	91	53,5
	%	36,3	-	63,7	-	100	-
Guztira		39	100	131	100	170	100,0
		22,9	-	77,1	-	100	-

Iturria: Siadeco, 2013

Haurren arteko harremanetan ez bezala, Artalekuko monitoreen ahotatik ateratako espresio eta azalpen gehiago neurtu ahal izan ditugu Azken Portukoekin alderatuz. Bestalde, monitorea haurrei zuzentzen zaieneko komunikazioak kontuan izanda, egoerak ez du horrenbesteko alderik kiroldegiaren arabera hizkuntza funtzionamenduari dagokionean. Bai Artalekuko eta baita Azken Portuko monitoreen ahotan, euskararen erabilera % 96ean kokatzen da.

Kiroldegia		MONITOREAK HAURREI					
		Euskaraz		Gaztelera		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Artaleku	Kop.	448	58,3	19	59,4	467	58,4
	%	95,9	-	4,1	-	100	-
Azken Portu	Kop.	320	41,7	13	40,6	333	41,6
	%	96,1	-	3,9	-	100	-
Guztira		768	100	32	100	800	100
		96,0	-	4,0	-	100	-

Iturria: Siadeco, 2013

Haurrak monitoreari zuzentzen zaizkieneko harreman kopuruari erreparatuz, maila bertsuan kokatzen dira Artaleku eta Azken Portu. Hizkuntzaren alderdia aztertuta, aldiz, aldeak nabarmenak dira kiroldegiaeren arabera: Artalekun euskararen presentzia % 51koa da eta Azken Portun berriz % 89koa. Datuok haurren arteko harremanetan ikusitakoekin alderatzen baditugu, haurren hizkuntza funtzionamendua aztertuz esan dezakegu monitoreak baduela eraginik haurren euskararen erabileran. Artalekun euskararen indizea % 8 izatetik % 51 izatera pasatzen da (44 puntu altuagoa) eta Azken Portun % 36 izatetik % 89 izatera (53 puntu altuagoa). Alderaketa hau egiterakoan, hizketa-aldia egin duten haurrak berdinak ez izatea gerta litekeela kontuan hartu behar dugu.

HAURRAK MONITOREARI							
Kiroldegia		Euskaraz		Gaztelera		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Artaleku	Kop.	55	34,2	53	80,3	108	47,6
	%	50,9	-	49,1	-	100	-
Azken Portu	Kop.	106	65,8	13	19,7	119	52,4
	%	89,1	-	10,9	-	100	-
Guztira		161	100	66	100	227	100
		70,9	-	29,1	-	100	-

Iturria: Siadeco, 2013

- Haur igeriketa ikastaroetako euskara indizea, kiroldegiaeren arabera

Laburbilduz, bi kiroldegien artean alde nabarmenak dauden euskararen erabileran haurren artean ematen diren harremanetan eta haurrak monitorearekin izandako komunikazioetan.

Bestalde, kiroldegi bakoitzean guztira euskaraz behatutako hizketa-aldien portzentajea 5 puntuko aldea dagoela esan behar da, Azken Portukao Artalekukoaren gainetik kokatuz.

Kiroldegia	Haurren arteko harremanak euskaraz	Monitoreak haurrei euskaraz	Haurrak monitoreari euskaraz	Guztira euskarazko hizketa-aldien portzentajea
Artaleku	7,6	95,9	50,9	77,8
Azken Portu	36,3	96,1	89,1	84,5

Iturria: Siadeco, 2013

- **Hizkuntza funtzionamenduaren datu orokorrak harreman motaren arabera eta monitoreari jarraiki**

Harreman mota bakoitzeko hizkuntza funtzionamenduan, monitoreen eragina aztertzea du helburu atal honek.

Artalekun haurren arteko komunikazioen euskara indizea % 7an kokatzen dela ikusita, monitoreen arteko aldeak badaudela esan behar da. Zehazki, hiru monitoreren kasuan hurrek elkarren artean ez dute euskararen inolako erabilerarik egin eta aldiz, beste monitore baten kasuan euskararen erabilera batez besteko indize horrekiko 25 puntu gainerik kokatzen da.

HAURREN ARTEKO HARREMANAK			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Artaleku	1	11,1	88,9
	2	-	100,0
	3	-	100,0
	4	11,8	88,2
	5	33,3	66,7
	6	-	100,0
Batez beste		7,6	92,4

Iturria: Siadeco, 2013

Monitoreen arteko alde horiek Azken Portu kiroldegian ere garbi xamar azaltzen dira. Haurren arteko komunikazioen euskara indizea % 36an kokatzen dela ikusita, batez besteko horrekiko oso gainerik kokatzen dira bi monitoreri dagozkion emaitzak eta beste biren kasuan euskararen erabilera indize hori 0 izatera pasatzen da.

HAURREN ARTEKO HARREMANAK			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Azken Portu	1	50,0	50,0
	2	-	100,0
	3	59,0	41,0
	4	13,8	86,2
	5	16,7	83,3
	6	-	-
	7	40,0	60,0
Batez beste		36,3	63,7

Iturria: Siadeco, 2013

Monitorea haurrari zein hizkuntzatan zuzentzen zaion aztertuta, Artalekuren kasuan monitorea bati dagokion eragina da azpimarratu beharrekoa, gaztelaniaren erabileraren indizea batez besteko indizea baino 18 puntu altuagoa baita.

MONITOREAK HAURREI			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Artaleku	1	100,0	0,0
	2	94,9	5,1
	3	97,7	2,3
	4	98,8	1,2
	5	100,0	0,0
	6	77,6	22,4
Batez beste		95,9	4,1

Iturria: Siadeco, 2013

Azken Portu kiroldegia kasuan, ez dago monitorea araberako horrelako alde nabarmenik.

MONITOREAK HAURREI			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Azken Portu	1	94,3	5,7
	2	100,0	0,0
	3	96,4	3,6
	4	96,7	3,3
	5	98,2	1,8
	6	93,2	6,8
	7	95,7	4,3
Batez beste		96,1	3,9

Iturria: Siadeco, 2013

Haurrak monitoreari hitz egiterakoan (gogoan izan Artalekun batez besteko indizea % 51koa dela) dispersioa handi xamarra dela esan behar da eta monitorearen arabera behatutako emaitzen artean alde nabarmenak daudela. Izan ere, erabilera maila baxuena, batez bestekoarekiko 40 puntu azpitik kokatzen da eta altuena, berriz, 29 puntu goitik.

HAURRAK MONITOREARI			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Artaleku	1	62,5	37,5
	2	38,1	61,9
	3	80,0	20,0
	4	54,5	45,5
	5	76,5	23,5
	6	11,1	88,9
Batez beste		50,9	49,1

Iturria: Siadeco, 2013

Dispersio hori ez da hain nabarmena Azken Portuko datuak aztertzen baditugu. Horrela, % 89ko batez besteko indizearen 14 puntu azpitik kokatzen da emaitza baxuena eta 11 puntu gainetik altuena. Zentzu honetan esan, monitore baten kasuan hemen aztertzen ari garen harreman guztiak euskaraz izan direla.

HAURRAK MONITOREARI			
	Monitorea	Euskaraz	Gaztelaniaz
Azken Portu	1	88,9	11,1
	2	100,0	0,0
	3	97,3	2,7
	4	90,9	9,1
	5	87,5	12,5
	6	76,9	23,1
	7	75,0	25,0
Batez beste		89,1	10,9

Iturria: Siadeco, 2013

- **2009ko ikerketan bildutako emaitzekiko alderaketa**

Kiroldegietako ikastaroei loturiko hizkuntza plangintza honetan zehar momentu ezberdinetako egoeraren argazkiak atera ditugu egitasmoari hasiera eman zitzaienetik. 2009 urtean zehar egindako datu bilketan, ikastaroetan lanean zebiltzan hezitzaileekin izandako elkarrizketetan euren ardurapean zituzten taldeei buruzko hainbat galdera egin zitzaizkien. Horrela, haurren igeriketa ikastaroetako 65 talderen informazioa eskuratu zen talde barruko hizkuntza funtzionamenduari dagokionean. Talde barruan aztertutako harreman motak honakoak izan ziren:

Harreman-mota	Monitorearen azalpenak
	Irakasle eta taldekideen arteko harremanak (monitorea haurrari eta haurrak monitoreari)
	Haurren arteko harremanak

Eta hizkuntza funtzionamenduari buruzko informazioa ondorengo tipologiarekin bildu zen:

Hizkuntza funtzionamendua	Beti edo ia beti gaztelaniaz
	Gaztelaniaz > euskaraz
	Gaztelaniaz = euskaraz
	Euskaraz > gaztelaniaz
	Beti edo ia beti euskaraz

2013 urtean zehar eskuratutako datuekiko alderaketa egiteko saiakeran, kontuan hartu behar diren alderdiak dira:

- 1.- Aztertutako harreman mota dela eta, "monitorearen azalpenak" eta "haurren arteko harremanak" bere horretan mantendu dira; aldiz "irakasle eta taldekideen arteko harremanak" aukera oraingoan haurrak monitoreari zuzendutako harremanak izatera pasa da. Izan ere, monitorea haurrari zuzentzen zaioneko espresioak lehenengo aukeran biltzea egokiagoa ikusi dugu.
- 2.- 2013ko neurketen iraupena talde bakoitzerako 15 minutukoak izanda, harreman mota konkretu bat zein hizkuntzetan ematen den neurtzeko aukerarik ez dugu izan zenbait kasutan, harreman hori eman ez delako (neurketarik gabeko kasuak bezala adierazi ditugu ondorengo tauletan). Horrelakorik ez genuen izan 2009an; monitoreei galdetuta aukera bat edo beste erantzun ziguten beti.

Orain arte hizketa-aldiez aritu bagara, kirol taldeez jardungo dugu atal honetan. 1197 hizketa-aldiak 51 kirol talderi dagokiela ikusita, 2013ko zuzeneko neurketetan jasotako emaitzak 2009ko planteamendura egokitzeko ariketak ondorengo egoera islatzen digu kiroldegika:

Artaleku kiroldegia	Monitoreak haurrei		Haurrak monitoreari		Haurren arteko harremanak	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz	-	-	4	14,3	16	57,1
Gaztelaniaz > euskaraz	-	-	5	17,9	1	3,6
Gaztelaniaz = euskaraz	1	3,6	1	3,6	1	3,6
Euskaraz > gaztelaniaz	7	25,0	4	14,3	-	-
Beti edo ia beti euskaraz	20	71,4	7	25,0	1	3,6
Neurketarik gabeko kasuak	-	-	7	25,0	9	32,1
GUZTIRA	28	100,0	28	100,0	28	100,0

Iturria: Siadeco, 2013

Azken Portu kiroldegia	Monitoreak haurrei		Haurrak monitoreari		Haurren arteko harremanak	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz	-	-	-	-	7	30,4
Gaztelaniaz > euskaraz	-	-	1	4,3	1	4,3
Gaztelaniaz = euskaraz	-	-	1	4,3	2	8,7
Euskaraz > gaztelaniaz	8	34,8	4	17,4	1	4,3
Beti edo ia beti euskaraz	15	65,2	16	69,6	4	17,4
Neurketarik gabeko kasuak	-	-	1	4,3	8	34,8
GUZTIRA	23	100,0	23	100,0	23	100,0

Iturria: Siadeco, 2013

2009an eta 2013an eskuratutako emaitzen arteko alderaketa eginez, eta aurreko orrian adierazitako mugak kontuan hartuta, Artaleku kiroldegian harreman mota ezberdinek ondorengo bilakaera izan dutela esan behar:


Euskararen erabilerak gora egin du monitoreak haurrei emandako azalpenetan eta baita haurrak monitoreari zuzendutako komunikazioetan. Aldiz, haurren ateko harremanetan 2009an monitoreek estimatutako datuekiko alde esanguratsuenak (ia) beti gaztelaniaz eta gaztelaniaz gehiago aukeren artekoak dira.

Artaleku kiroldegia	Monitoreak haurrei		Haurrak monitoreari		Haurren arteko harremanak	
	2009	2013	2009	2013	2009	2013
Beti edo ia beti gaztelaniaz	11,1	-	19,4	19,0	47,2	84,2
Gaztelaniaz > euskaraz	-	-	22,2	23,8	41,7	5,3
Gaztelaniaz = euskaraz	-	3,6	30,6	4,8	2,8	5,3
Euskaraz > gaztelaniaz	-	25,0	19,4	19,0	5,6	-
Beti edo ia beti euskaraz	88,9	71,4	8,3	33,3	2,8	5,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0*	100,0	100,0*

Iturria: Siadeco, 2009 eta 2013

*Oharra: Neurketarik gabeko kasuak kontuan hartu gabe iristen gara % 100 horretara.

1. Grafikoa: Artalekuko haurren igeriketa ikastaroetako taldeen hizkuntza erabileraren bilakaera (2009-2013)



Iturria: Siadeco 2013.

■ Beti edo ia beti gaztelaniaz ■ Gaztelaniaz > euskaraz
 ■ Gaztelaniaz = euskaraz ■ Euskaraz > gaztelaniaz
 ■ Beti edo ia beti euskaraz


Azken Portu kiroldegian, ez dago apenas bilakaerarik monitoreek erabilitako hizkuntzaren estimazioetan eta haurren arteko harremanetan ere aldeak txikiak dira. Aldiz, haurra monitoreari zuzentzen zaioneko komunikazioetan euskararen erabilerak pisu dezente handiagoa islatzen du 2009ko datuetan baino.

Azken Portu kiroldegia	Monitorea hurrei		Haurra monitoreari		Haurren arteko harremanak	
	2009	2013	2009	2013	2009	2013
Beti edo ia beti gaztelaniaz	3,4	-	6,9	-	10,3	46,7
Gaztelaniaz > euskaraz	-	-	58,6	4,5	41,4	6,7
Gaztelaniaz = euskaraz	-	-	13,8	4,5	13,8	13,3
Euskaraz > gaztelaniaz	27,6	34,8	6,9	18,2	13,8	6,7
Beti edo ia beti euskaraz	69,0	65,2	13,8	72,7	20,7	26,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0*	100,0	100,0*

Iturria: Siadeco, 2009 eta 2013.

Oharra: Neurketarik gabeko kasuak kontuan hartu gabe iristen gara % 100 horretara.

2. Grafikoa: Azken Portuko haurren igeriketa ikastaroetako taldeen hizkuntza erabileraren bilakaera (2009-2013)



- Beti edo ia beti gaztelaniaz
- Gaztelaniaz > euskaraz
- Gaztelaniaz = euskaraz
- Euskaraz > gaztelaniaz
- Beti edo ia beti euskaraz

4.2.3.- Zuzeneko behaketak egiteko erabilitako teknikari buruzko argibideak

Zuzeneko behaketa teknika erabili da igeriketa ikastaroen hizkuntza funtzionamenduari buruzko neurketa egiteko. Plangintza honen barruan, 2006ko datu bilketa erabiltzaile eta monitoreek bete beharreko inkesta bidez egin zen eta 2009an, monitoreekin izandako aurrez aurreko elkarrizketa bidez. Eskuratutako datuen fidagarritasuna zalantzan jarri gabe, garrantzitsua iruditu zaigu oraingoan, datuak zuzeneko behaketa bidez jasotzea.

Behaketa-lana gauzatzekoan, giro desberdinak bizi izan ditugu kiroldegi bakoitzean. Artalekun deserosotasun sentazio bat atzeman dugu zenbait hezitzailearen aldetik, batez ere euskara ongi hitz egiteko behar besteko gaitasuna ez dutenen artean. Zenbat eta gaitasun altuagoa izan, gure presentziak orduan eta gutxiago baldintzatu duela monitorearen lanerako hizkuntza funtzionamendua iruditu zaigu. Gaitasun mailako hutsuneek mugatu egiten dute ikastaroa jasotzen duten haurrekiko komunikazioa eta komunikazio horren izaera ere baldintzatzen dute. Horri lotuta, Azken Portuko monitoreek harreman estuagoak eta goxoagoak dituztela iruditu zaigu, bertan egon garen aldietan behinik behin, hori izan da gure pertzepzioa. Eta gainera, gure presentziak ikastaroen hizkuntza funtzionamendua maila baxuagoan baldintzatu duela iruditu zaigu.

Behaketak egin ostean monitoreekin aurrez-aurre izandako elkarrizketetan, gure presentziak euren hizkuntza funtzionamenduan eragina izan duela onartu digunik ere izan da. Siadecoko teknikariak behaketa zuzenak egiten ibili izanak, izan omen du eraginik orokorrean, baina batez ere gaitasun maila baxuko monitoreen aldetik ohi baino euskara gehiago entzun dela adierazi digute. Guk geuk ere sumatu dugu, kasu batzuetan forzatu xamarra izan dela euskararen erabilera, azalpen oso laburrekin, agindu soilekin, espresio monosilabikoekin, keinuen bidezko komunikazioari garrantzia oso handia emanaz, eta abar. Kasu konkretu horietan, gu bertan egongo ez bagina erdararako joerak indarra hartuko lukeela baieztatzeko moduan sentitzen gara. Ondorioz, eguneroko errealitatean haurren igeriketa ikastaroetako euskararen erabilera azken neurketek erakutsi digutenaren azpitik kokatzen direla baieztatu dezakegu, monitoreen erabilerari dagokionean.

Bestalde, haurren artean gure presentziak apenas izan duen eraginik. Haurrak ohituta omen daude igerilekuan kanpoko jendea ikustera (mantentze lanak egiten dituztenak, errebisioak egiten dituztenak,...). Behaketa lanak balio izan du haurren arteko harremanetan eta haurrak monitoreari zuzentzen zaizkioneko hizkuntzaren egoera erreala ezagutzeko.

4.2.4.- Ikastaroak ematerakoan monitoreek gehien erabilitako hitz eta espresioak

Monitoreek erabilitako ohiko hitz eta terminoak:		
Ados?	Egin borobil bat besoekin	Lasai!
Albora begira	Egin txipli-txapla	Lehenengo burua
Altza burua	Entzun!	Lurra ukitu gabe
Animo!	Eseri denok	Lurrera begira
Ariketa	Eskailerara!	Luzatu besoak
Arinago	Eskuak aurrean	Luzatu eskuak
Arnasa hartu	Eskuekin indarra egin	Luzatu gorputza
Astindu	Etorri!	Luzatu hankak
Atera uretatik	Etzanda	Mantendu hor
Atzera begira	Ez gelditu!	Mesedez
Atzeraka	Fuerte!	Mugitu hankak
Aurpegi guztia sartu	Gelditu gabe!	Neopreno
Aurrera begira	Goazen!	Oinak mugitzen
Aurreraka	Gora begira	Oso ondo!
Azkar!	Gora-behera hankak	Ostikada eman
Azkar-azkar	Hankak altxatu	Paretara
Azkarrago	Hankak aterata	Paretaren ondotik
Bat bi, bat bi!	Hankak fuerte	Poliki!
Bat, bi, hiru!	Hankak gora	Prest!
Begiratu	Hankak mugitzen	Putz egin!
Behera!	Hankak paretara begira	Sabela gora
Belarrria besoari pegatuta	Hankak ur azpian	Sabela puztuta
Belauna tolestu gabe	Hartu arnasa	Salto buruz
Benga!	Hartu arnasa ahoarekin	Salto!
Besoak gora	Hartu pilota	Sartu besoak
Besoak luze eta belarrirra itsatsita	Hasi berotzen!	Sartu burua
Besoekin lagundu	Heldu taula goitik	Sartu gauzak saskian
Beste alderaino	Hondoratu gabe	Sartu ipurdia
Beste buelta bat!	Hori da!	Segi!
Bildu hankak	Horrela bai!	Taula
Buelta eman!	Hurrengo	Txalupa
Buelta!	Igeri	Txalupa egin
Burbuilak egin	Ireki-itxi	Txankleta
Burbuila	Itxaron	Txiri-buelta
Burua barruan	Jarri belaukiko	Txiri-buelta egin!
Burua sartu	Jarri zutik	Txorkatila atzeraka
Buruz behera	Jaso taulak	Txurroa/Zaldia
Buruz gora	Kokotsa behean	Uretara!
Crawl/crol osoa	Kokotsa lurrera begira	Zeinen txanda da?
Crawl/Crol	Kontuz!	Zilborra uretatik kanpora
Denok gora!	Largo osoa	Ziztu bizian
Denok prest?	Largo/Luzera	

4.3.- BEGIRALEEKIN IZANDAKO ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Irungo bi Udal kiroldegietan haurren igeriketa ikastaroak ematen dabilzan 14 monitoretatik 10 elkarrizketatu ditugu. Horietatik 5ek Artalekun egiten dute lan eta beste 5ek Azken Portun.

4.3.1.- Ezaugarri soziodemografikoak

Ezaugarria	Azalpena	Adierazlea
Adina	Kirol monitore edo hezitzaileen batez besteko adina	27,4 urte
Sexua	Emakumezkoa	% 40
	Gizonezkoa	% 60
Jaioterria	Irundar edo Hondarribiarrak	% 80
Prestakuntza	Oinarrizko titulazioa duten monitoreen ehunekoa (begirale titulua)	% 50
	Kirol arloko prestakuntza espezifiko duten monitoreen ehunekoa (irakasle espezializatua, gorputz jardueretako teknikaria, entrenatzailea edo gorputz hezkuntzako diplomatua)	% 50
	Lan esperientzia (batez besteko urte kopurua kirol hezitzaile gisa lanean)	4,5 urte
Lan baldintzak	Astean kirol heziketari eskainitako ordu kopurua batez beste	23,3 ordu
	Lanarekiko asebetetze mailari dagokionean, oso gustura edota nahikoa gustura daudela adierazi duten monitoreen ehunekoa	% 100

Irungo Udal kiroldegietan haurren igeriketa ikastaroak ematen dituzten hezitzaileen adina 27,4 urtekoa da batez beste. Irun edo Hondarribian jaiotakoak dira gehientsuenak, 10etik 8 zehazki.

Monitore horien kirol formakuntzaren inguruan esan, monitoreen erdiak direla kirol arloko prestakuntza espezifiko dutenak eta talde horren barruan gorputz jardueretako teknikariek hartzen dutela pisurik handiena, heren batekin. Monitoreen beste erdiak oinarrizkoa den begirale titulua dauka. Lanean esperientzia ere prestakuntzaren ardatz garrantzitsua dela kontuan hartuta, esan, batez beste 4 urte terdiko "kirol esperientzia" daukatela hurrekin lan egiten duten gazte hauek.

Monitoreek gustuko dute euren lana eta azkenaldian lan baldintzen inguruko arazotxoren bat izan dutela aitortuta ere, Patronatuarentzat egindako lanarekin oso gustura daudela adierazi digute 10etik 6k. Haurren igeriketa ikastaroetako monitore izanik, helduekin ere lan egiten dute eta nahiz eta kolektibo bakoitzarekin lortu beharreko helburuak desberdinak izan, gustura jarduten dute batzuekin nahiz besteekin. Haurrekin igeriketa mailaren progresioa ikustea errazagoa dela adierazi digute eta hori oso motibagarria dela batez ere txikienezako eta noski euren gurasoentzako.

Elkarrizketatuek, astean batez beste, 23 ordu pasatxo eskaintzen dizkiote kirol hezitzaile lanari eta horietatik gehien gehientsuenak haurren igeriketa ikastaroetara bideratuta daude.

4.3.2.- Ezaugarri soziolinguistikoak

Ezaugarria	Azalpena	Adierazlea
Ama hizkuntza (3 urte bete arte etxean ikasitako hizkuntza)	Euskara	% 30
	Biak (euskara eta gaztelania)	% 20
Ikasketa eredia	Ikasketak D eredian egin dituztenen ehunekoa	% 50
Euskara gaitasuna	Euskaraz oso ongi edota ongi hitz egiteko sentitzen direnen ehunekoa	% 80
	Euskara mailaren egiaztagiria dutenen ehunekoa	% 60


Haurren igeriketa ikastaroak ematen dituzten ezaugarri soziolinguistikoak aztertuta, esan erdiek izan dutela euskara, bera bakarrik edota gaztelaniarekin batera etxean ikasitako lehen hizkuntza.

2 monitoretik batek 18 urte bitarteko ikasketak D eredian egin dituela adierazi digu. Ez dugu izan ikasketak A eredian egin dituela adierazi digun monitorerik.

Hezitzaileen hizkuntza gaitasuna dela eta, euskaraz hitz egiteko oso ongi edota ongi moldatzen direla adierazi digute 10etik 8. Datu honen harira eta zuzeneko behaketak egiterakoan egiaztatu dugun bezala, esan behar da elkarrizketatu ezin izan ditugun 4 monitoretik 2ren euskara gaitasuna mugatua dela eta ondorioz, unibertso osoaren datuak eskuartean izango bagenu euskara gaitasun altua % 70ean kokatuko zela, goiko taulan azaldutako adierazlearen 10 puntu azpitik; jaitsiera hori Artaleku kiroldegian emango litzatekeela esan behar da.

Ondorengo grafikoak monitoreen hizkuntza gaitasunari buruzko zehaztasun gehiago ematen digu. Elkarrizketatu ditugun kirol monitoreen hizkuntza gaitasunari buruz zera azpimarra daiteke: euskara ulertu eta irakurtzeko gaitasun mailak altuagoak dira hitz egin eta idazteko gaitasunak baino. Izan ere, ongi edota oso ongi ulertu eta idazteko gai direla adierazi dute monitore guztiek; aldiz, ongi edota oso ongi hitz egiteko gaitasuna %80ean kokatzen da eta idaztekoa berriz %70ean.

3. Grafikoa: Haurren igeriketa ikastaroetako monitoreen hizkuntza gaitasuna 2013




Iturria: Siadeco 2013.

2006 urtea geroztik plangintza honetan lortutako informazioari ahalik eta probetsu handiena ateratzeko ahaleginean, aurtan jasotako datuak 2006 eta 2009 urteetan jasotakoekin alderatu nahi izan ditugu. Alderaketa honetan kontuan hartu behar dugu, batetik, 2006ko txosteneko datu orokorrak ez baizik eta haurren igeriketa ikastaroez arduratzen ziren monitoreen datuak erabiltzen ditugula (7 monitore guztira) eta bestetik, informazioa jasotzerakoan erabilitako tipologia orduan “asko, nahikoa, gutxi, batere ez” izan zela.

Irakurketa orokorra eginez, 2006tik 2013ra euskara gaitasun altua mantentzen dela monitoreen artean esan genezake; “oso ongi” eta “ongi” aukeren artean badaude aldeak, baina ezin esan gaitasunaren ikuspegitik bilakaera esanguratsu bat islatzen dutenik. Idatzizko trebezia da nolabait, eta beti ere monitoreek aitortutakoari jarraiki beheranzko bilakaera erakusten digun bakarra. Hitz egiteko gaitasunaren kasuan, 2006, 2009 eta 2013 datuak ditugu eta 2006tik 2009ra izandako jaitziera 2013an errekuperatu dela esan dezakegu.

4. Grafikoa: Haurren igeriketa ikastaroetako monitoreen hizkuntza gaitasunaren bilakaera (2006-2013)



Euskara mailaren inguruko egjaztagiria dutela adierazi digutenak 10etik 6 izanik, 6 horietatik 4k B2 maila daukate eta 2k C1 maila. Europako Erreferentzi Marko Bateratuak zehaztutako mailen arabera, monitoreak ondorengo egoeran leudeke:

Erabiltzaile gaitua	C1	Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jarioasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.
Erabiltzaile independentea	B2	Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoek ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzuneekin mintza daiteke, jarioasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

Iturria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) 2013.


4.3.3.- Hizkuntza erabilera

Ezaugarria	Azalpena	Adierazlea
Euskararen erabilera indizea etxean	Etxean (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi dutenen ehunekoa	% 30
Euskararen erabilera indizea lagun artean	Lagun artean (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi dutenen ehunekoa	% 20
Euskararen erabilera indizea kirol monitore gisa lanean	Kirol monitore gisa lanean (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi dutenen ehunekoa	% 50
Euskararen erabilera indizea kiroldegian erabiltzaile bezala	Kiroldegiko erabiltzaile gisa (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi dutenen ehunekoa	% 0
Haurren igeriketa ikastaroak ematerakoan	Euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen direla adierazi dutenen ehunekoa	% 50
	Gaztelaniaz euskaraz baino erosoago sentitzen direla adierazi dutenen ehunekoa	% 10

Bizitzaren esparru desberdinetan dituzten hizkuntzen erabilera ohiturengatik galdetu diegu monitoreei. Erabilera indizea, kasu honetan (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi duten monitoreen portzentajeak osatzen du. Etxeko euskararen erabilera indizea % 30ean kokatzen da eta lagun artekoa % 20ean. Kiroldegia lotuta, adierazgarria da lanean eta erabiltzaile bezala erabilera indize honek erakusten dituen aldeak. Horrela, datu orokorreki erreparatuz, euskararen erabilera indize altuena kirol monitore gisa kiroldegietan egiten duten lanari lotua dago, % 50 batekin. Beste era batera esanda, kiroldegiko lanak monitore hauen harremanak euskalduntzen dituela baieztatu dezakegu. Aldiz, erabiltzaile modura kiroldegian (ia) beti euskara edota euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi duten monitorerik ez dugu topatu.

Haurren igeriketa ikastaroak ematerakoan euskaraz erosoago sentitzen dela adierazi digu 2 monitoretik 1ek. Bi hizkuntzetan berdintsu moldatzen dela 10etik 4k eta erdaraz erosoago sentitzen dela 10etik 1ek.

5. Grafikoa: Monitorean esparru desberdinetako hizkuntza erabileraren bilakaera (2006-2013)



Iturria: Siadeco 2013.

- (ia) beti erdara edo erdara gehiago
- Biak berdintsu
- (ia) beti euskara edota euskara gehiago

Hizkuntzen erabilerari dagokionean, 2006 eta 2013 urteetako emaitzen arteko alderaketa eginda, ondorio adierazgarrienak ondorengoak dira:

- Kirolegiko erabiltzaile gisa erdara (ia) beti edo gehiago erabiltzen zutela adierazi ziguten monitorean % 30ek 2006an; portzentaje hori 2013an % 90 da. Datu honekin, hala ere, ezin esan dezakegu kiroldegiko harremanetan euskararen erabilerak behera egin duenik; 2006ko datuetan erabiltzaile ziren 7 monitorea ari gara eta 2013ko datuetan erabiltzaile diren 10 monitorea. Aurrekoari lotuta, kiroldegiko erabiltzaile gisa euskara (ia) beti edo gehiago erabiltzen zutela adierazi zuten 2006an galdegindako monitorean heren batek, eta 2013an ez digu horrelakorik inortxok adierazi.
- Kirole gisa lanean (ia) beti erdaraz edo erdara gehiago erabiltzen zutela adierazi zuten monitorerik ez zen izan 2006an eta 10etik 3 izan dira 2013an.
- Aldiz, etxean euskara (ia) beti edo gehiago erabiltzen zutela adierazi zigun monitorerik ez zen izan 2006an eta 10etik 3 dira 2013an.

4.3.4.- Hizkuntzekiko jarrerak

Ezaugarria	Azalpena	Adierazlea
Deserosotasun sentimendua	Kiroldegian euskara entzuterakoan deserosotasun sentimendua sentitzen dutenen ehunekoa	% 10 (euskara gaizki erabiltzen dutela ikusten duenean sentitzen dela deseroso adierazi dute hauek)
Ilusio-sentimendua	Kiroldegian euskara entzuterakoan ilusio-sentimendua sentitzen dutenen ehunekoa	% 70
Gehiago jakin nahia	Kiroldegian euskara entzuterakoan euskara gehiago jakin nahia sentitzen dutenen ehunekoa	% 40
Gehiago erabili nahia	Kiroldegian euskara entzuterakoan euskara gehiago erabili nahia sentitzen dutenen ehunekoa	% 80
Gaizki hitz egiteko beldurra	Kiroldegian euskara entzuterakoan euskaraz gaizki hitz egiteko beldurra sentitzen dutenen ehunekoa	% 40
Obligazio sentimendua	Kiroldegian euskara entzuterakoan obligazio sentimendua sentitzen dutenen ehunekoa	% 0

Monitoreek hizkuntza desberdinekiko erakusten dituzten jarreraren inguruko informazioa ere eskuratu nahi izan dugu elkarrizketetan. Kasu honetan, indizea aipatutako sentimendua askotan edo nahikoa alditan sentitu dutela adierazi duten monitoreen ehunekoari dagokio. Euskarari dagokionean gehiago jakin nahi da monitoreek gehien adierazi diguten sentipena, % 80ko indize batekin, bigarren lekuan kokatzen da euskara kiroldegian entzutean sentitzen duten ilusioa, % 70eko indizearekin. Gehiago jakin nahia eta gaizki hitz egiteko beldurra asko edota nahikoa sentitzen dutela adierazi dute 10etik 4 monitorek eta obligazio sentimendurik ez du inork aipatu.


Hurrengo orrialdeko grafikoari erreparatzen badiogu, 2006an bildutako datuen inguruan azpimarratu euskararekiko modu nabarmenean indarra hartzen zuen sentimendua "gehiago erabili nahia" izan zela, % 86arekin eta gutxiena berriz, deserosotasun sentimenduak % 0 batekin. Gaztelaniarekiko pisurik handiena lortzen zuena ilusio sentimendua izan zen, % 43arekin.

2013ko datuak aztertuz, euskararekiko “gehiago erabili nahiak” du indar handiena % 80ko pisuarekin eta gutxiena obligazio sentimenduak, % Orekin. Gaztelania dela eta, deserosotasun sentimenduak da aipatuena, % 30arekin.

2006 eta 2013 urteetan lortutako emaitzen arteko alderaketa eginda, datu adierazgarrienak honakoak dira:


- Euskara “gehiago erabili nahia” adierazi dutenen ehunekoak ez du aldaketarik izan 7 urte beranduago. Euskararekiko “deserosotasun” sentimendua sortu da 2013an monitoreen artean; zehaztu behar da euskara entzun eta gaizki erabiltzen dutela ikusterakoan sortzen zaiela sentimendu hori. “Gehiago jakin nahiak” beheranzko bilakaera izan du % 72tik % 40ra. Euskararekiko “obligazio sentimendua” desagertu egin da 2013an; aldiz, “gaizki hitz egiteko beldurra” dutela adierazi digutenak gehiago dira, % 30 2006 eta % 40 2013an.
- Gaztelania entzuterakoan “ilusioa” sentitzen dutela adierazi digutenak gutxiago izan dira 2013an, % 10, 2006an baino, %43. Bestalde, “obligazio sentimendua” sortu da 2013an % 10arekin, 2006an inork ez zigun halakorik adierazi.

6. Grafikoa: Euskararekiko jarreraren bilakaera (2006-2013)



Iturria: Siadeco 2013.

7. Grafikoa: Gaztelaniaekiko jarreraren bilakaera (2006-2013)



Iturria: Siadeco 2013.

4.4.- HIZKUNTZA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO KUALITATIBOA

Haurren igeriketa ikastaroak ematerakoan monitoreek jarraitzen dituzten hizkuntza irizpideen berri izatea elkarrizketen beste helburuetako bat izan da. Atal honetan jasotzen dira monitoreek hitzez hitz esandako adierazpenak, eremu eta gai nagusi desberdinetan antolatuta.

Monitorean hizkuntza funtzionamenduari buruzko adierazpenak:

- Euskararen eta gaztelaniaren erabileraren inguruan, irizpideen bateratasun falta:
 - “Normalean euskaraz egiten dut”*
 - “Euskara gehiago erabiltzen dut erdara baino”*
 - “Directamente lo hago en euskera y en castellano”*
 - “Sistematikoki azalpenak lehendabizi euskaraz ematen ditut eta gero erdaraz, beti dago baten bat ulertzen ez duena”*
 - “Nire ustez taldea osatzen duten haurren arabera asko aldatzen da egoera eta ondorioz nik haurren igeriketa ikastaroak ematerakoan jarraitzen ditudan urratsak hizkuntzaren ikuspegitik”*
 - “Azalpenak euskaraz ematen ditut. Aurpegi arraroren bat ikusiz gero, errepikatu egiten dut azalpena, berriro ere euskaraz. Aurpegi arraroarekin jarraitzen badu haurrak, “ulertzen duzu?” galdetzen diot eta ezezko erantzuna jasotzen badut, orduan erdaraz ematen diot azalpena.*
 - “Badaude haurren igeriketako talde konkretuak non erdara euskara baino gehiago erabiltzen dutan”*
 - “Erdarara pasatzen naiz komunikazio arazoak daudela ikusten dudanean, aurpegi arraroak jartzen dituztelako edota euskara maila baxua dutela dakizun haurrek eskatutakoak ongi egiten ez dituztelako”*
 - “Helburua igeriketa progresioa lortzea da, ez besterik; horregatik, komunikazio arazoak daudenean erdara erabiltzen dut”*
 - “Saiakerak egiten ditut euskara ahalik eta gehien erabiltzeko. Momentu puntaletan egon zaitezke sentsibilizatuago eta saiatu azalpen orokorrak euskaraz ematen eta gaztelania harreman pertsonalizatueta mugatu, baina azkenean ohikoa da errazenera jotzea eta erdara erabiliz gauzak behin bakarrik azaltzera. Nik behintzat horrela jokatu dut.”*
- Azalpen orokorren eta harreman pertsonalizatuaren arteko bereizketa:
 - “Orokorrean taldeari azalpenak ematerakoan euskara erabiltzen dut. Banakako harremanetan erdaldunekin, gehienbat atzerritarrekin, gaztelania erabiltzen dut ikasturte guztian zehar”*
 - “Haurrekin normalean euskaraz ematen ditut azalpen orokorrak. Euskara ulertzen ez duten haurrak taldean egonez gero, erdarazko azalpenak ematen dizkiot modu indibidualizatuan”*
- Errepikapenen eragina:
 - “Igeriketa ikastaroetan terminoak eta kontzeptuak errepikatu egiten dira sarri eta hori lagungarria da orokorrean euskara maila baxuko aurrek ere euskarazko kontzeptuak ulertu eta ikasterakoan”*
- “Mimika” edota keinuen bidezko komunikazioaren erabilera:
 - “Horrekin lortzen da batetik haurrak egiteko eskatzen zaiona ulertzea eta bestetik, euskarazko terminologia ikasi eta barneratzea”*
 - “Euskarazko azalpen orokorrekin eskatutakoak egitea lortzen ez badut keinuekin, “mimika” erabiliz saiateren naiz lehendabizi eta horrekin ez badut lortzen komunikazioa ona izatea gaztelaniara pasatzen naiz”*
 - “Errepikapena ere bai baina batez ere gestoek erabilera da erdarara ahalik eta gutxien pasatzeko erabiltzen dudana”*

Monitoreen euskara gaitasunari lotutako adierazpenak:

- Euskara gaitasunaren araberako mugak hurrekiko komunikazioan:

"Al tener un nivel no muy alto de euskera, lo que hago es preparar una serie de palabras y expresiones y aprenderme de memoria los términos que utilizamos más frecuentemente"

"Actualmente solo tengo niños de entre 3 y 4 años y con lo que hago me arreglo bien. Pero es verdad que si tuviera a niños de mayor edad la cosa cambiaría, no creo que fuera capaz de darles un servicio muy completo porquen me vería limitada"

"Euskara menperatzen ez duten monitoreen zenbait agindu ikasten dituzte eta errepikatzen dituzte behin eta berriz, baina ez dira gai azalpen luzeagoak euskaraz emateko"

"Me ha pasado, no saber algún término concreto... Pregunto a otro monitor porque saben más y así me arreglo"

"Tengo memorizadas palabras y expresiones más frecuentes y las utilizo"

"Ikastaroak ematerakoan batzuetan zalantzak izaten ditut hitz teknikoak ongi erabiltzen ote ditudan, euskarazko termino egokiak ezagutu eta ikastea beharrezko ikusten dut. Kasu horietan erdarakadak erabiltzen ditut nik eta pena da"

- Ikastaroetan egindako erabilera euskara maila hobetzeko lagungarri:

"Mi nivel de euskera no es muy alto en general pero con los niños me apaño. Me resulta más fácil hablar euskera con los niños que con los adultos porque siento menos vergüenza. Considero que mi nivel de euskera ha mejorado gracias al uso que hago del idioma en los cursos de natación infantil"

- Ikastaroetan erabiltzen den terminologia biltzen duen hiztegi bateratuaren beharra:

"En ese sentido me han venido muy bien los diccionarios y las fichas técnicas que repartisteis en el 2009"

"Ongi etorriko litzaiguke hitz teknikoen zerrenda egoki bat eta monitore guztiek erabili beharreko terminoak bateratzea, denek berdin erabiltzeko (largoa, crol...); hitz horiekin hiztegi moduko bat edukitzea..."

- Euskara gaitasunean hutsuneak onartuta ere euskara ikasteko motibaziozik ez:

"No estoy interesado en cursos de euskera. Mi objetivo es formarme deportivamente hablando y estoy haciendo cursos para ello. Lo del euskera lo dejo para más adelante"

Ikastaroak jasotzen dituzten haurren euskara gaitasunari lotutako adierazpenak:

- Taldean euskara maila baxuko haurrak izatearen eragina:

"Haurren arabera eta eurek duten adinaren arabera egoera oso desberdina da talde batetik bestera eta ondorioz hizkuntzen erabilera. Euskararen erabilera ez dut nik monitore gisa baldintzatzen, haurren ezagutza-mailak baizik"

"Haurren aldetik, zenbaitetan, aurpegi arraroak ikusten ditut euskarazko azalpenak ematen ditudanean, batez ere ikasturte hasieran. Etxean euskara erabiltzen ez duten haurren artean, nahiz eta eskolan euskara ikasi, oportetako garai luzeetan ez dute euskara entzuten askok eta kiroldegian ikasturte hasieran kostatu egiten zaie belarria egitea. Hori dela eta, horrelako taldeekin egiten duena da azalpen orokorrak lehendabizi euskaraz eman eta ondoren gaztelaniaz. Batez ere urria eta azaroko hilabeteetan jokutzen dut horrela; ikasturtean zehar ere taldearen euskara mailaren arabera azalpen gehiago ala gutxiago eman behar ditut gaztelaniaz"

"Haurrek, hizkuntzagatik ulertu ez badute ere normalean ez dute galdetzen, oso gutxi dira "no entiendo" esaten dutenak, baten bat badago, baina edo monitorearen gestoak ikusita edota aldameneko adiskideak egindakoak begiratuta moldatzen dira, ez dute galdetzen"

"Gertatu zait baten batek esatea "por favor me puedes explicar en castellano". Kasu horietan, nahikoa da taldean euskara ulertzen ez duen haur bakarra egotea eman beharreko azalpen orokorretan erdarara jotzeko"

"Normalean monitoreek badakigu zein haurrek ulertzen duen eta zeinek ez. Ulertzen ez dutenekin ere ni saiatzen naiz euskaraz egiten, ikasi dezaten"

- Haurren euskara mailari buruzko zalantzak:

"Batuetan, haurrek eskatutakoa ongi egiten ez dutela ikusten dudanean, zalantzak izaten ditut ulertu ez dutelako ote den edo bestela, haurrak direlako eta nahi dutena egiten dutelako. Hori ikusten dudanean erdarazko azalpenak ere ematen ditut badaezpada ere"

- Haurren euskara gaitasuna ikastetxeari lotua:

"Euskara gaitasunaren maila haurretan asko aldatzen da haurrak ikasketak burutzen dituen ikastetxearen arabera, kiroldegiko jardunean bertan alde nabarmenak ikusten dira batzuetatik besteetara"

"Badaude euskara maila baxu xamarra duten haurrak. Nire ustez jatorrizko ikastetxearen arabekoak dira alde nabarmenenak; familiaren jatorrizko hizkuntzak eta erabilera ohiturek ere eragina izango dute noski"

Gurasoen eraginari buruzko adierazpenak:

"Nire ustez orokorrean barneratua dute gurasoek haurtzako ikastaroak euskaraz direla. Hala ere, kasuren batean etorri zait gurasoren bat "a mi hijo en castellano" egiteko eskatuz. Kasu horietan zalantza egiten du berak zer erantzun, baina euskara ahalik eta gehien erabiltzeko saiakera egiten jarraitzen du horrelakoetan ere"

"Los niños generalmente no dicen nada pero algún padre sí que ha venido diciendo que a su niño le hable en castellano"

Monitoreen arteko harremani buruzko adierazpenak:

- Monitoreek elkarren artean nagusiki gaztelania erabiltzeak haurrengan izan dezakeen eraginaz:

"Monitoreen arteko harremanak askotan gaztelaniaz izaten dira, gehien gehienetan, euskara menperatzen ez duten monitoreak ere badaudelako. Eta noski hori hauren ikusten dute"

"Ez dakit zergatik, kasu oso konketuak kenduta gure artean erdaraz egiten dugu. Horrela hasi ginen bere garaian eta hori aldatzea zaila da oso"

"Monitoreen artean gaztelania da ohiko hizkuntza, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Eta horrek haurrekiko harremanetan eraginik izan dezakeela kontsideratzen dut, baina aldatzea... zaila"